



ZUZENDARITZAREN GUTUNA FUTBOLEKO FAMILIARI

Ostadar S.K.T.-ko Futbol ataleko Zuzendaritzak Futbol Eskolako eta kirol federatuko jokalaria eta gurasoei hartutako erabakien berri eman nahi die, Covi-19ak sortutako egoera kontuan hartuta.

Alde batetik, futbol atalak 150.000 euroko aurrekontua du: hauetatik 64.400 euro kirolarien kuotak dira (%41), eta gainerako 85.600 euroak (%59) klubaren lanak sortzen ditu, diru-laguntzen, babesleen, eta abarren bidez. Hau da, kirolari bakoitzak ordaintzen duen kuota jarduerak benetan balio dunaren %41 da, eta gainerakoa (%59) klubak ordaintzen du.

Bestalde, kirol aseguruak, kuota federatuak eta arbitraiak denboraldiaren amaiera arte ordaindu dira eta ez dute deskonturik jaso. Hau da, gastu guztiak eginda daude, entrenatzaileei ordaindu beharrekoa izan ezik. Kontzeptu horri eta garraio-gastuen jaitsierari esker egin dezakegu konpentsazioa.

Aurretik azaldutakoa eta egungo egoerak ekarriko dituen ondorio ekonomikoak kontuan hartuta Futboleko Zuzendaritzak ondorengo erabaki du:

- 1) 2020/21 denboraldiko kuota ez da igoko.
- 2) Aurten parte hartu duten jokalariek 15€-ko murrizketa izango dute 20/21 denboraldiko kuotan.
- 3) Denboraldi honetan uzten duten kirolariei ez zaie kuotarik itzuliko.
- 4) Gaur egungo egoera dela eta, ez da inolako tailaketarik egingo, ez eta ekipamendurik eskatuko ere, egoeraren bilakaeraren zain gaude.

Denak ondo egongo zaretelakoan,

Laster futbol zelaian ikusiko dugu elkar, ANIMO!